

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



Argazkia: **Sonia Urrelzi Gurpegul.**

■ HERNANI MENDI MENDIYA IGERILEKUAK

Hirugarrenez jolasera, igerileku irekietara

Pasa den astean bezala, abuztua bukatu arte astelehen eta asteazkenero izango dira jolasak aukeran, Mendi Mendiyaneko igerileku irekietan, 11:00etatik 14:30ak ingurura arte.

GOIZA jolasean pasatzeko aukera izango da gaur ere, Mendi Mendiyaneko igerileku irekietan, abuztuko astelehen eta asteazkenero bezala. Abuztuaren 28a izango da azken eguna. Goizeko 11:00etatik 13:00etara bitartean, lehorreko jolasetan aritu ahal izango da: ohe elastikoak, slack line, ping-pong, badminton, boleibola, futboleia, harrapaketa...

Eguerdi partean, berriz, 13:00a aldera, koltxonetak aterako dituzte igerilekuetara, eta 14:30ak ingurura arte jolastu ahal izango da horiek.

Ohiko sokorristez gain, 6 begirale ere izango dira denera, bai lehorreko eta baita uretako jolasek iraun bitartean.

Eguraldia bustitik badator, aukeran, hobe berdin-berdin blai egitea, baina jolasetan murgilduta! ||



Koltxonetak eguerdian aterako dira igerilekura.

■ KRONIKA TESTU LIBURUEN AZOKA

Eskola liburuak Kronikan, utzi eta eramateko

Dagoeneko behar ez diren eta oraindik etxean gordeta dauden eskolako testu-liburuak jasotzeko epea gaur irekiko du Kronikak, hilaren 23ra arte. Gero, behar diren liburuak eskuratzekoa irekiko da.

TESTU liburuen bigarren esku-ko azoka jarriko du martxan Kronikak. Gaurtik, hilaren 23ra arte, Hernaniko Larramendi II kaleko bulegoan utzi ahal izango dira dagoeneko behar ez diren, baina oraindik ere etxean gordeta dauden eskolako testu liburuak.

Ondoren, abuztuaren 26tik irailaren 6ra arte, merke-merke erosi ahal izango dira.

Armairua hustu eta Kronika lagundu

Azoka honekin hiru helburu jarri ditu Kronikak: batetik, armairua hustutzen lagundu eta testu-liburuak berrerabiltzeko aukera ematea; bestetik, liburuak merke erosteko aukera ematea; eta, azkenik, Kronikari laguntzea.

Astigarraga eta Hernaniko ikastetxeetako eskola liburuak

jasoko dira, Lehen eta Bigarren Hezkuntzakoak, nahiz Batxilergokoak. Liburuak ekartzen dituenaren datuak jasoko dira, eta hartara, ondorengo azokan liburuak salduz gero, dagokion ordaintzeko harremanetan jarri ahal izango da Kronika berarekin. Zati bat, Kronika laguntzeko gordeko da.

Liburuak saldu ezean, hauek bueltan jasotzeko epea jarriko

da, hala nahi dutenek aukera izan dezaten. Gero, hustu egingo da Kronikako biltegia ere.

Azoka, hilabete bukaeran

Eskolako testu-liburu azoka, berriz, abuztuaren 26tik irailaren 6ra bitartean egongo da jarrita, Kronikan. Bertatik nahi denean pasa eta behar dena erosteko aukera izango du nahi duenak. ||

ASTE NAGUSIA 2019

Egun osoan zehar, Zuriola Street Food, Kursaleko terrazan; eskulagintza azoka Clara Campoamor plazan.

Goizean, Euskal Herriko Nekazal Produktuen VIII. Azoka berezia, Loiola kalean.

Arratsaldean, Arte Nagusia: Emakumeak artea sortzen, Kontxa pasealekuan.

08:00, Abordatza! Baltsen muntaketa Portuan.

10:00-13:00, Futbol 5 txapelketa azkarra Benta Berriko pistetan.

11:00-13:00, Jolas eta kirol tailerrak. Boley eta rugby Katalunia plazan.

12:00, 37. Patata tortilla lehiaketa *Contigo en la playa*, Miramarren.

12:30, Bertsolariak, Easo plazan.

13:30-14:30, Dupla, hiri-musika Kursaleko Urumea terrazan.

16:00-17:00, Arte Nagusia. Kontxa pasealekuan.

16:00-20:00, Puzgariak Easo plazan.

16:30, Aste Nagusiko XVI. Esku Pilota txapelketa: Finalerdiak. Trinitate plazan.

17:00, *Abordatza!* Portutik irten eta Kontxako hondartzaraino.

17:00-20:00, Jeansekin poltsa bat egiteari buruzko tailerra helduentzat. Clara Campoamor plazan.

17:30, 'MAGiklow'n' haurrentzat ikuskizuna, Kursaleko terrazan.

18:00, Erraldi eta buruhandiak, erdialdean, Abuztuak 31 kaletik.

18:30, Tximeletak txaranga, erdialdean.

19:30, Epilako Musika Banda (Zaragoza), Bulebarren.

20:00, Dupla, hiri-musika Kursaleko Urumea terrazan.

20:00, Goizaldi dantza taldea, folklorea Konstituzio plazan.

22:45, Su Artifizialen Nazioarteko 56. Lehiaketa Kontxako badian. Scarsella Fireworks (Italia).

23:15, Zinea Ondarretan: *La La Land*.

23:30, Zezensuzkoa, Miramar kaletik.

23:30-03:30, Kursaal Gune Zabala. DJ Gaua Kursaleko terrazan.

23:30, Aste Nagusiko DJ Gazteen IV. Erakustaldia: Etherealz.

00:30, DJ Tortugaa.

23:30, *¡A Guuuusto!* umore euskaldun-kubatar ikuskizuna, Grosen.

23:30, Azabache orkestra, dantzadia Easo plazan.

23:30, Puro Relajo, mariatxia, Bulebarren.

23:30, In Concert antzerkia, Gipuzkoa plazan.

23:45, Hombres G, Saguesen.

Piraten egitaraua

09:30, Baltsen montaketa, Kaian.

14:30, Bazkaria.

16:00, Brindisa.

16:30, Kalejira.

17:00, Txupina, Donostia

Abordatza, Kaian.

19:00, Kalejira, Kontxatik Flamenkara.

20:00, *McOnak*, Flamenkan.

20:30, Afari musikatuak, Trinian.

23:05, Physis versus Nomos + Bi

Zaldi, Trinian.

23:05, Xavi Sarriá + Ze Esatek, Flamenkan.

Zorionak Marc Villarroya Maravilla!

6urte

P.L. PROKOLOR ZENTRUA MARGOAK Landaribar, s.l.

50 URTE BAINO GEHIAGO ZUEKIN! AHOLKULARITZA PROFESIONALA.

Dekoraziorako eta industriarako pinturak
Mota guztietako zoru-pinturak
Fabriken preskripzio teknikoak (10 urteko garantia)
Aholkularitza teknikoak
Kolorre berdintzeetan espezialistak
Mota guztietako zoru-salmenta eta jartzea
3000 erreferentziatutako gora paper pintatuetan
Biniloak
Sprayen ontziratzea
Etxez etxeko zerbitzua

ASTELEHENETIK OSTIRALERA
7:30 - 13:00
15:15 - 19:00

LARUNBATEAN
9:00 - 13:00

943 55 21 31
ANDRE KALEA, 45
HERNANI

ATZA

Nagusia 32, ASTIGARRAGA
943 55 49 89
ikatzataberna@gmail.com

ezkati

ileapaindegia

Ituregi, 4
Hernani
943 55 65 56
Hartu ordua



Zaparradak botako ditu goizean, noizbehinka, eta, arratsaldean atertera egingo du. Dena den, ipar-mendebaldeko haizeak indartsu joko du eta ezatzegina izango da. **Min.15° / Max.20°**



Goizean lainotuta egongo da oraindik, eta euri pixka bat egin dezake. Baina arratsalderako atertu eta argizera egingo du. Iparraldeko haizeak ekialdera egingo du pixkanaka. **Min.13° / Max.21°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI ARRAUNA

Olatuetan dantza, ezin irauli balantza

ETE Ligako sailkapenean zortzigarren postuan iltzatuta segitzen du Maialen ontziak, Zumaian 7garren eta Ondarroan 9garren egin ondoren.

NEURRIA hartu nahian ari dira Hernani Arraun Elkarteko Maialen ontziak neskak. Liga hasieran Xabier Zabala entrenatzaileak azaldu bezala, «akoplatzeko lanak» zeuzkatela bazekiten, baina baita «hiru hilabetetako lana» zela eta «hobetzeko denbora» bazutela ere. Badirudi, hala ere, balantza aldeko jartzen zailtasunekin dabilzala.

Galtza bete lan izan dute pasa den asteburu honetan ere, bi estropadarekin. Larunbatean, Zumaian, txukun aritu ziren, eta 7garren egin zuten,

Beste hiru estropada geratzen dira, Kontxako sailkapen estropadaren aurretik.

11:53,52ko denborarekin. Aurreko lau estropadei begiratuta, aldaketa bazetorrela ematen zuten, 8garren egin baitute horietan. Baina, atzo, Ondarroan, ez zuten zorzea aldeko izan, eta 9garren egin zuten (12:19,44).

Gauzak horrela, ETE Ligako sailkapen orokorrean 8garren jarraitzen dute, 59 punturekin. Aurretik Isuntza dute, 10 puntu

gehiagorekin, eta atzetik, Ondarroa, 36 punturekin. Aurrenekoak, 118 punturekin berdinduta, Hibaika eta Zumaia dira.

Zortzigarrenean trabatuta geratu direla ematen du, hortaz, baina Liga hasieran Zabala aipatu bezala, «txintxo eta gogor, egunerokoan jardun beharri» tinko eutsiko diote lanak bukatu arte.

Eta oraindik badute lana, baina Kontxa ere gerturatzeko ari da. Hiru estropada geratzen dira sailkapen estropadaren aurretik, eta ilusioari eutsiko diote neskek. ||

HERNANI ERREMONTEA

Irabazita ere, alferrik Azpirozentzat

Ansa Iri 30 eta 27 irabazi zion Azpirozek larunbatean, baina ez da nahikoa, eta Buruz Buruko Kutxabank Txapelketatik kanpo geratu da.

AURRENEKO partiduan Ezkurra Iren kontra 30 eta 25 galdu izanak aukera gabe utzi du Azpiroz, Buruz Buruko Kutxabank Txapelketako ligaxkan aurrera egiteko. Larunbatean Ansa Iri irabaztea ezinbestekoa zuen, oraindik ere aukeraren bat izateko, baina 30 eta 27 irabaztea ez zen nahikoa izan, horrekin ezin baitu ligaxkako sailkapeneko aurreneko postua lortu, eta beraz, txapelketatik kanpo geratu da.

Asko borrokatu zuten biek partidua, eta tanto politik ikusteko aukera izan zen. Leher eginda, lurrean bukatu zuten biek, eta Azpirozek, irabazita ere txapelketatik kanpo geratu zela jakinda, ezin izan zion zapora garratza kendu, garaipenari.

Orain, Ansarena da aukera. Sailkatzeko, Ezkurra Iri irabazi beharko dio, hura 26 tanto edo gutxiago eginda utzita. 27 egiten baditu, ordea, Ezkurra II

sailkatuko da. Biharko partiduan argituko da guztia.

Bestalde, estelarrean jokatu zuen Barrenetxea IVk Zeberio-ekin, eta azken honen garaipean bolada eten egin zen, azkenean, Urriza eta Endikaren aurka; 35 eta 40 galdu zuten. Beste partiduetan, Beñat eta Agirrezabala izan ziren garaile, 35 eta 26, Zaldua eta Zubiriren aurrean, eta Juanenea eta Etxeberria III Segurola eta Ionen aurrean, 30 eta 28. ||



Hernanik, Jubenilen Nazional mailak, Vasconiarri gola sartu zionekoa.

HERNANI CD HERNANI

Beroketa tartean oraindik, indarrak neurtzen

Lagunarteko aurreneko partidua larunbatean jokatu zituzten CD Hernaniko bi futbol taldek. Nazional Jubenilen mailako mutilak aritu ziren aurrean, eta partiduen hasieran gol polita egitea lortu bazuten ere, Vasconiak irabazi zien azkenean, 1 eta 2koarekin. Arratsaldean Ohorezko Erregional Mailako taldearen txanda izan zen. Hauek Pasaiaren aurka neurtu zituzten indarrak, eta batekoarekin berdinduta bukatu zuten. ||

EREÑOTZU DENDA

Itxita denda, gaurtik ostegunera arte

Gaur hasi eta ostegunera bitartean, itxita egongo da Ereñotzuko denda, bi egun horiek barne. «Eragozpenak barkatzeko» eskatu dute. Bueltan izango dira ostiralean. ||

ASTIGARRAGA JAIK

Ikatzan, San Roke egunerako txartelak

Badatoz Santiomendiko eta San Roke eguneko jaiak. Abuztuaren 15ean dianarekin esnatuko da Santiomendiko auzoa, eta egun osorako izango dute festa: tortila lehiaketa eta sagardo dastaketa, herri kirolak, sega eta aizkora desafioa, auzo bazkari eta afaria... Hurrengo egunean, berriz, San Roke eguna ospatuko da Santiomendiko ermitan, eta besteak beste, bazkari herrikoia egingo da 14:00etan. Txartelak Ikatza tabernan daude salgai. Aurretik meza, dantzariak eta Imanol Ituño magoa izango dira, eta ondoren, dantzaldia. ||

ARANO SAN ROKE

San Rokeko bazkari txartelak, salgai

Ostirala izango da San Roke eguna, eta Aranon, ohi bezala, txistularien laguntzarekin ospatuko dute. Bazkari herrikoia ere izango da Kontsejupen, eta izen-ematea irekita egongo da asteazkenera arte. Kontsejupera bertara deitu behar da horretarako: 948 51 42 79. ||

HERNANI FUTBOL 7

Izenematea irekita, Futbol 7 Txapelketan

Jakinarazi zuten abuztuaren 24an jokatu dela aurten, Futbol 7 Txapelketa, Zubipen. Orain, izen-ematearen berri eman dute. Garin tabernan, futbol7hernani@gmail.com helbide elektronikoa eta sare sozialetan eman daiteke izena, eta «lanak errazteko», ordainketa momentu berean egiteko ere eskatu dute. Txapelketaren egunean bazkaria ere izango da, eta ondoren, Luziano Show eta kale buelta musikatua. Txapelketan izena emateak 10 euro balio ditu, eta bazkariak beste 10; biek batera, berriz, 15 euro. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

JOSÉ ANTONIO SÁNCHEZ GÓMEZ

- Goian Bego -

HERNANIKO TALDE
SOZIALISTAKO ZURE KIDEAK.

Hernanin, 2019ko abuztuaren 12an

JOSEAN SÁNCHEZ GÓMEZ

Betiko izango zaitugu gogoan.

KARABI ELKARTEA

Hernanin, 2019ko abuztuaren 12an

IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar dugu jatetxe bateko sukaldean laguntzeko eta arraskako lanetarako. Kotxea beharrezkoa da. Deitu: 943 33 13 87

LOGIKALINE enpresak HIRU TELEOPERADORA LANPOSTU bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontrata: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06

Itziaroy Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura, ... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)